



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ADISKIDE ETA SENIDE

2021^{EKO} ASTE SANTUA
FAMILIAN BIZITZEKO



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

Elizbarrutian garatzen dihardugun Adiskide eta senide – Comunidades acogedoras ekimenaren barruan, Aste Santuko jaiegunetan etxean, **familian** egiteko proposamenak aurkeztu nahi dizkizuegu.

Egun bakoitzerako proposatutako zeinu erara, jarduera erraz batzuk eginez, senideok elkarrekin denbora ematea da helburua. Jesusek egun horietan bizi izan zuenak gurekin eta gure eguneroko bizitzarekin zein zerikusi duen ikustean datza. Horregatik, zeinu guztiei lotuta, testuinguru laburra agertuko da: **Testuingurua eta zeinua**.

Lagungarri hauen xedea ez da, inola ere, elkarte ospakizunen lekua hartzea, familian Aste Santuaren bizipena aberastea baizik. Aurrera, eta gozatu egun hauek familian nahiz elkartean biltzeko ematen duten aukeraz.

OSTEGUN SANTUA



TESTUINGURUA

Jesusek, azkena hurbil dela jakinda, ihes egin edo ezkutatu ordeztu, afari berezia antolatzen du gertuko adiskideak biltzeko. Bizitasunez bizi nahi du une hori. Gainera datorkion guztiak eragiten dion ziurgabetasuna azaldu nahi die gertukoei eta, aldi berean eta batez ere, maitasun handiz gogoratu elkarrekin bizi izandakoa, eta Jainkoarengan duen egundoko konfiantza agertzera eman.



ZEINUA



Aita eta amak antzinako argazki-albumak edo oroitzapenez beteriko ordenagailuko karpetak arakatuko dituzte. Jesus adiskideekin mahaiaren inguruan eseri zenean ere, askotariko oroitzapenak agertuko ziren, elkarrekin bizi eta ikasitakoak... Dei egiten diegu aita eta amari beren aurreko norbait, maite duten norbait, ikasbide izan duten norbait, beren alderik onenaz jabetu zen norbait agertzen den argazkia bila dezaten. Jesusek ikasleei lehen aldiz deitu zien bezala. Seme-alabekin batera bilatu, oso gustuko baitute zuek hobeto ezagutzea, zuek entzutea eta zuen inguruko gauzak jakitea, bereziki beraiek zuekin egon aurreko gauzak ezagutzea. Delako argazki hori aurkitu eta aukeratu ondoren, elkarrekin arretaz begiratu, azaldu hurrei pertsona berezi hori nor den, zer sentitzen duzuen ikustean, zer esango zenukeen bera ikustean. Zer esan nahi zuen eta esan nahi duen zuentzat. Txikiok nahi adina galdera egin dezakezue.



TESTUINGURUA




Jesus eta ikasleak bildu egin ziren, baina jatekoaren inguruan, beste hainbat aldiz Galileako auzo eta herrietan egin izan zuten bezala. Jesusek Jainkoaren Erreinuko azken otorduaren zeinu eta aurrerapen bezala bizi izan zituen otorduak, beti lekua utziz beren maitasuna gehien behar zutenentzat. Bere adiskideekin batera, beste inork maite ez zituenek ere bazuten lekua Jesusen mahaiaren inguruan.



ZEINUA

Etxeko txikiok dagokizue afarirako mahaia ipintzea. Mahaia beste batzuentzat ipintzea, eskuzabaltasunezko keinua da, laguntzeko, zerbitzatzeko era. Hori egitean, leku bat gehiago jarri dagokion plater, edalontzi, mahai-tresnekin... Leku horretan ez da inor eseriko, baina gaurkoa bezalako afari berezi batean, kristau familiaren mahaietan, Erreinuko otorduan bezala, beti izango da beste norbait esertzeko aukera, bereziki beharrean dagoen norbait. Luzaroan inor etxera gonbidatu gabe izango zarete... Bakoitzak pentsa dezala nor gonbidatuko lukeen. Horren premian dagoen norbait bada, askoz hobeto. Idatzi bere izena paperrean eta plater gainean utzi. Familia abegitsua izatea, mahaietan beste norbaitentzako lekua jartzeko prest egotea da. Ezaguna iruditzen zaizue?: "Un nuevo sitio dispuesto, para un amigo más...". Atera argazkia, mahaiaren inguruan eserita zaudetela, plater huts horrekin, etorkizunean oroitzapen atsegina izan dezazuen une honetaz. Ez inoiz ahaztu familia ireki eta abegitsua izateko konpromisoa.



TESTUINGURUA



Afaltzen ari zirela, ogia hartu zuen Jesusek eta, **bedeinkazioa** esan ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez: «Hartzazue eta jan, hau nire gorputza da». Gero, kopa hartu eta, **esker oneko** otoitza egin ondoren, eman egin zien, esanez... Mt 26, 26 hur.



ETA OTOITZA

Afaltzen hasi aurretik, egin otoitz labur hau; rezandovoy.org delakotik hartutako bedeinkapen eta esker oneko otoitza da. Familiako kide bakoitzak bere esker ona gehi dezake.

Eskerrik asko, Jesus, Ostegun Santu honengatik.

Egun honetan, beti mahaikide izateko aukera den mahaia jartzen baituzu.

Eskerrik asko, Jesus, maitatzeagatik, zerbitzatzeagatik eta besteak maitatzen irakasteagatik.

Eskerrik asko, Jesus, janari egiten baitzara ogi-puska eta ardo apur batean, horrela betiko gogoan geratuz.

Jauna, bedeinka ezazu gure familia eta laguniezaguzu gure mahaia beti besteentzat zabalik izaten.

Jauna, bedeinka itzazu banatuko ditugun janari hauek.

Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

OSTIRAL SANTUA



TESTUINGURUA


Egun gogorra da gaurkoa Jesusentzat eta bere senide eta adiskide guztientzat. Ostegun Santuan atxilotu ondoren, epaitu eta heriotzara kondenatuko dute. Jesusek badaki bere bizitzaren azkena gainean duena, baina hala ere, konfiantza betea du Jainkoarengan eta azken une horietan ere besteei barkatzeko gauza da. Ohar zaitezte zein zaila den bizimodua korapilatzen ari zaizkigunei barkatzea! Berarekin izango dira azkeneraino bere ama Maria eta Joan ikasle maitea.



ZEINUA



Ostiral Santua estu lotuta dago Jesus hil zen Gurutzearekin. Egunean zehar, har ezazue astia familian eskulana egiteko: gurutza papiroflexiaz gaurko egunaren sinbolo bezala. Jesusen gurutzeak gogoan izan nahi ditu sufritzen ari diren pertsona guztiak; horregatik, prozesuari ekin aurretik, une batez, gogora ekar ezazue benetan gaizki pasatzen ari den, sufritzen ari den norbait, eta idatzi bere izena gero gurutzea egiteko erabiliko dugun paperrean. Sormena garatu eta maitasun eta gogo biziz egin. 'Play' delakoan klik egin eta gurutzea egiteko bideo tutorialerako esteka irekiko da.
la nola geratzen zaizuen!



ETA OTOITZA

Gaez, oheratzean, ondorengo otoitza errezatuko dugu eta bakoitzak bere gurutzea erakutsi eta gogoratu duen pertsonaren izena esango du. Otoitza gurasoek irakurriko dute, esaldiz esaldi, eta hurrek errepikatu:

Gabon, Aita Jainkoa. Oheratu naiz; ostirala da.

*Jesusen bizitzan, egun tristea da gaurkoa,
gizon zintzoa izateagatik, denak, inor bereizi gabe, maitatzeagatik
hil egin zutela gogoratzen baitugu.*

*Ikus dezadala, Jauna, beti eta denak maitatzea
dela pertsona on eta zintzo izateko biderik onena.
Aita Jainkoa, eman indarra Jesusen antzeko izan nadi.
Amen.*

LARUNBAT SANTUA

TESTUINGURUA



Elizak Jesusen heriotza eta berpizkundea gogoratzen du egunotan. Eta, horren arabera, ospakizunak Jesusen bizitzako azken egunetako gertaeretara moldatzen ditu. Larunbatez, ez dago liturgia ospakizunik elizetan, Jainkoaren isiltasunaren ordua da. Jesusen heriotzaren ostean (ostiral arratsaldean) egiten den lehen ospakizuna larunbat gauez izaten da, Pazko Egunaren bezperako beilan, kristau bizitzako ospakizunik garrantzitsuenean. Guk, orain, itxarotean, Jainko Aitarenganako konfiantzan... jarriko dugu arreta eta Jesusek adiskideei egin zien agintzaria gogoratuko dugu: ez zituela bakarrik utziko.



ETA OTOITZA

*Gabon, Aita Jainkoa.
Oheratu naiz; larunbata da.
Egun hauetan Jesusen bizitza eta heriotza gogoratzen ditugu.
Atzo, Jesus hil egin zen, eta bihar? Bihar, ikusiko dugu.
Jesusek, ez zituela bakarrik utziko esan zien bere adiskideei.
Gaur, zain gaude...
Jesusen adiskideentzat, hauxe da urteko gaurik garrantzitsuena.
Pazko bezpera da, esna-aldia...
eta uste osoa jartzen dugu Aita Jainko horrengan...
Jesusi eta zure seme eta alaba guztioi diguzun egundoko maitasunari esker
betirako biziko garela sinesten dugu.
Bihotz-bihotzez eskatzen dizugu.
Amen.*



PAZKO EGUNA



ESNATU! PIZTU DA JESUS!

Familia dantzan ari den irudian klik eginez entzungo duzuen abestiarekin esnatu haurrak. Egun pozgarria da gaurkoa!





TESTUINGURUA

Gaurko eguna poztasunez betetakoa da kristau guztientzat, gertaera berezia ospatzen baitugu. Jesusen adiskideek egundoko aurkikuntza egiten dute: **PIZTU DA JESUS, ALELUIA!**

Jainko Aita onak piztu egin du Jesus. Gurutziltzatua, berpiztua da. Jesus bizirik da betirako.

Jesusen adiskideek sentsazio sakon eta berezia esperimentatu zuten beren bihotzean. Ez zuten Jesus ikusten, baina bizirik sentitzen zuten bihotzean. Gaur, gogoratu eta ospatu egin nahi dugu; Jesusen adiskideek bizi izan zuten poztasun bera sentitu nahi dugu. Jesus zuregan dago, bere presentzia eta adiskidetasuna sentiaraziz.

ZEINUA



Jainkoak Jesus berpiztua oparitu zigula gogoraraziz, eskuzabaltasunezko zeinua proposatzen dizuegu: maitasunezko adierazpen den oparia, opari berezia, egin diezaiozuela elkarri.

Zer esan nahi dugu? Opari berezia izango dela jasotzailearentzat, erosi ezin daitekeen eta presarik gabe egin behar dugun zerbait. Zeuena den eta oso gustuko duzun zerbait oparitzean datza, maitasunagatik uko egiteko eta asko maite duzun norbaiti emateko prest zaudeten gauza. Gurasoek seme-alabei edo alderantziz oparitu diezaiekezue, anai-arreben artean, aita eta amaren artean... (zeuek erabaki nork nori oparitu).

Zeurea den zerbaiti uko egin eta maite duzun norbaiti oparitu berea izan dadin betirako. Ez da ezinbestekoa garestia izatea, baliotsua izan behar du ematen duenarentzat, ematea kostatzen zaion eta bestearengan pentsatuz aukeratu duen zerbait. Goizez pentsatuko dugu zer oparitu eta eguerdian, familian bazkaltzeko elkartzen garenean, emango diogu delako pertsona horri.




TESTUINGURUA

Jesusen berpizkundeak sinestezina dirudi, baina horrela gertatu zen.

Hasieran, Jesusen adiskideak ere sinetsi ezinik zeuden.

Lehen ezusteko handia igande goizaldean gertatu zen, emakumeak hilobira joan zirenean, sarrerako harria mugituta zegoela eta hilobia hutsik, Jesusen gorpurik gabe, ikusi zutenean. Horrela kontatzen digu ebanjelioak. Lehen ezusteko horren ostean, bigarren ezusteko handia bizi izango dute. Ikasle bakoitzak, Jesusen ukitua sentitzen du bihotzaren sakonean. Bakea, poztasuna eta zoriontasuna sentitzen dute barnealdean, hitzez azaldu ere ezin den zerbait. Beren bihotzetan Jesus Berpiztua sumatu izanaren eragina da. Ezusteko hori bizi izango duzue gaur zuk zeuk eta zure familiak. Antzeman nahi duzu?






ZEINUA

Orain, “BERPIZKUNDEAREN EGUZKIA” egingo duzu.

Jarduera hau familian egitekoa da eta amaiera emango dio egun hauetan bizi izandakoari eta, aldi berean, begi-bistan izango dugu Pazko aldian ere, eta inspirazio bezala balioko digu.

Hartu kartulina horia eta marraztu zirkulu handia; horixe izango da eguzkiaren irudiaren erdigunea. Ondoren, punta asko jarri, eguzkiaren izpi erara. Dena marraztuta, ebaki eta puntetako batean zulo txiki bat egin, kordela pasatu eta etxean ondo ikusteko moduan zintzilikatu ahal izateko.

Zintzilikatu aurretik, idatzi hizki handiz JESUS eguzkiaren erdian.



Badugu eguzkia, eta zertarako balio digu?

Hauxe da proposamena: Pazko asteko egun bakoitzean, egunean zehar ingurukoak pozteko egin ditzakezen gauza zehatzak idatzii eguzkiaren punta edo hizki bakoitzean. Horrela, idatzitako hori besteeikiko eguneroko konpromiso bihurtuko da. Ez dio axola gauza txikiak ala itxura batean kaskarrak izatea. Nahikoak dira irribarrea eragiteko edo poztasuna emateko balio badute!

Eguzki hori Jesus berpiztuarekin bat egitearen ondorioetako bat irudikatuko duen sinboloa da.

Jesus adiskidearekin bat egiteak dakarren poztasuna hain da non berehala pizten den poztasun hori gainerako guztiei kutsatzeko nahia.



ALELUIA!

Musikak bihotza poztu egiten du. Primerako ideia da gaur eta datozen egunetan Aleluia pozik abestea, egunari hasiera emateko egin dugun bezala, Jesus bizia baita!

*“Ni, berriz, bizia –eta bizia ugari gainera– izan dezaten
etorri naiz”
Jn 10, 10*

